

# Zein albiste onak zientzia-albisteak

(How Good News are the Science News)

Zubia Gallastegi, Bego

Elhuyar Zientziaren Komunikazioa. Zelai Haundi Kalea 3.

Osinalde Industrialdea. 20170 Usurbil

b.zubia@elhuyar.com

BIBLID [0212-7016 (2010), 55: 2; 567-589]

---

*2008ko lehen lau hilabeteetan, Euskal Herrian argitaratzen diren egunkarietan argitaratutako zientzia-testuak aztertu ziren Elhuyar Fundazioaren ekimenez. Ikerketak zientzia-kazetaritzaren erradiografia eskaini zuen: besteak beste, kazetaritza-genero, gai eta iturri ohikoak identifikatu zituen. Teknologia eta osasuna dira euskal kazeten zientzia-gairik gogokoak. Horiek modu positiboan lantzen dituzte, eta informazio —albiste— gisa aurkeztu. Zientziari buruzko interpretazio gutxi eskaintzen dute, ordea, eta iritzirik ez.*

*Giltza-Hitzak: Zientzia-kazetaritza. Kazetaritza-generoak. Informazio-iturriak. Prentsa. Euskal Herria.*

*Durante los cuatro primeros meses de 2008, se llevó a cabo un estudio de los textos científicos publicados por los periódicos que se editan en Euskal Herria, a iniciativa de la Fundación Elhuyar. Dicho estudio proporcionó una radiografía del periodismo científico vasco: identificó, entre otros, los géneros periodísticos, temas y fuentes más habituales. Así, los temas científicos preferidos en los periódicos vascos son la tecnología y la salud. Estos temas se tratan de un modo positivo y se presentan como información o noticia. Sin embargo, se ofrecen pocas interpretaciones científicas y ninguna opinión.*

*Palabras Clave: Periodismo científico. Géneros periodísticos. Fuentes informativas. Prensa. Euskal Herria.*

*Au cours des quatre premiers mois de 2008, une étude des textes scientifiques publiés dans les journaux du Pays Basque a été menée, à l'initiative de la Fondation Elhuyar. Cette étude a fourni un aperçu du journalisme scientifique basque : elle a permis d'identifier, entre autres, les genres journalistiques, les thèmes et les sources les plus habituels. Ainsi, les thèmes scientifiques préférés dans les journaux basques sont la technologie et la santé. Ces questions sont abordées de manière positive et présentées comme des informations ou des nouvelles. Cependant, peu d'interprétations scientifiques sont offertes et aucune opinion.*

*Mots Clés : Journalisme scientifique. Genres journalistiques. Sources d'information. Presse. Euskal Herria (Pays Basque).*

“Urrats txikia gizonarentzat, urrats handia gizateriarentzat”. *Apolo XI*. espazio-ontziko hiru eskifaikideak Ilargian zeudela iragartzeko Neil Armstrongek esandako hitzek munduari buelta eman zioten. 1969ko uztailaren 21ean ez zen izan hori bezain albiste garrantzitsurik. Munduko egunkari guztietako azalek jasoko zuten espazio-bidaia haren berri. Baina egunkari guztiek jaso ote zuten albistea? Ez dago galdera horri ziurtasun osoarekin erantzuterik.

Erabaki-prozesu baten ondorioa da albistea. Gertaera bat, une jakin batean, albiste bilaka daiteke. Beste une batean, ordea, gertaera bera ez da albiste izango.

Erredakzioetara etengabe iristen den informazio-andanaren artean, oso gutxi bilakatzen dira albiste. Informazioa argitaratzen den unean bilakatzen da gertaera albiste, ez lehenago, eta hedabide baten bitartekoen bidez oso gertaera gutxi zabaltzen dira.

Baina gertaera albiste bihurtzeko hainbat faktorek bat egiten behar dute. Gertaerak egunkariko albiste-egendan lekua izatea<sup>1</sup> ezinbesteko baldintza izango da. Albiste-agenda egunez egun eta orduz ordu aldatuz joan ohi da, eta, gertaera batzuk albiste bihurtzen diren heinean, beste batzuk albiste izateari uzten diote.

*New York Sun* egunkariko editore zen John B. Bogart-ek 1882an emandako albiste-definizioa kazetaritza-eskola gehienetan erabiltzen da gaur egun ere: ez da albiste izango txakur batek gizon bati koska egitea; bai, ordea, gizon batek txakur bati koska egitea<sup>2</sup>. Ezohiko gertaerak albiste dira, beraz; ohikoak, ez.

1969ko uztailaren 21ean, gizaki batek lehen aldiz zapaldu zuen Ilargia, eta mundu guztiko egunkariak albistea azalera eraman zuten. Arrazoa? Nekez imajina dezakegu pertsona bat Ilargian paseatzen baino gertaera ezohikoagorik.

Berrogei urte geroago, 2009ko uztailan, *Apolo XI*ko espedizioaren balentria mundu guztiko egunkariak ekarri zuten gogora berriro. Zer arrazoi izan zuten editoreek 40 urte geroago albistea emateko?

Albiste bilakatzeko, ezohikoak izateaz gain, gertaerek audientziaren interesa ere piztu behar dute.

Egunero iristen zaizkion gertaeren artean, kazetari arituak berehala ezagutuko du albistea. Kazetari eskarmentudunak ez ditu gertaeraren ezaugarriak arrazoitu beharko gertaera hori albiste izango dela jakiteko; jakin daki.

Kazetari hasiberriarentzat, aldiz, auzia arazo ere izan liteke, eta irizpideak beharko ditu gertaera albiste izango den ala ez erabakitzeko. Gaiaren, nabar-

---

1. ARMENTIA, J. I.; CAMINOS, J. M.; PALAZIO, G. *Kazetaritzaren hasi-masiak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea. 2000; 169-201.

2. RANDALL, David. *El periodista universal*. 2. arg. Madril: Siglo XXI, 2008; 38. or.

mentasanaren, iturriaren, zabalkundearen, testuinguruaren eta audientziaren arabera hartuko du gertaera albiste bihurtzeko erabakia.

Egunkarietako orriak betetzen dituzten albisteak antzeko hausnarketa-prozesuen ondorio dira. Hausnarketa-prozesu horren ondorioz, zoritxarrarekin zerikusia duten gertaerak zorionarekin zerikusia dutenak baino maizago bilakatzen dira albiste. Egunkarien azalei errepasoa ematea nahikoa da baieztapena egiaztatzeko: heriotzek, gerrek, gaixotasunek, eta, oro har, krisiek orriak eta orriak betetzen dituzte.

“Kazetariak albiste txarrak ematen dituzte beti!”. Baieztapen horri aurre egiteko, gertaerak testuinguruan jarri behar dira<sup>3</sup>. David Randall kazetariak ezin hobeto azaltzen du auzia: “pentsa zer egoera negargarrian egon behar duen osasun-zerbitzu batek era honetako titularrak idatz daitezten: ‘Bizirik atera da ospitalean ingresatutako gizona’”.

Gizaki bat llargira lehen aldiz iritsi zenetik 40 urte pasatu eta gero ere, aparteko gertaera hura gogoratzeko antolatutako ekitaldiek kazetarien arreta pizten segitzen dute; izan ere, llargirako bidaiak ezohikoa, apartekoa, ia miragarria izaten segitzen du gaur egun ere. Albiste “ona” izan zen hura. Neil Armstrongen hitzetan “gizateriarentzat urrats handia”, eta hala jaso zuten egunkariak.

## 1. IKERKETA

Elhuyar Fundazioaren ekimenez 2008an egindako “Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren tratamendua eguneroko prentsan (2008)” prentsa-azterketak agerian utzi zuen zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-albisteak albiste onak, positiboak direla gehienbat.


2008ko urtarrilaren 1ean hasi eta lau hilabetez, bi irakurle arituk Euskal Herrian argitaratzen diren hamaika egunkari aztertu zituzten: *El Correo*, *Deia*, *El Diario Vasco*, *Noticias de Gipuzkoa*, *Berria*, *Gara*, *Noticias de Alava*, *Diario de Noticias*, *Diario de Navarra*, *Le Journal du Pays Basque* eta *Sud Ouest*. Zientzia, teknologia eta berrikuntzari buruzko 6.448 testu identifikatu zituzten. Milaka testu horien artean, nagusi izan ziren ikuspegi positiboa eskaintzen zutenak. Albisteen % 71 positibo gisa sailkatu ziren. Negatiboak % 18 izan ziren, eta neutroak, berriz, % 11.

Ikerketa definitu zenean, interesgarri jo zen albisteen ikuspegia ezagutzea. Horren arabera, albisteek ikuspegi positiboa, negatiboa edo neutroa izan zezaketen.

Albiste positibo gisa sailkatu ziren zientzia-aurkikuntza zein teknologia-berrikuntzei buruzko testuak eta horien ondorio ekonomiko, politiko eta sozial positi-

---

3. RANDALL, David, *El periodista universal*. 2. arg. Madril: Siglo XXI, 2008; 46 or.



boak aipatzen zituztenak. Zientzia-aurkikuntzek zein teknologia-berrikuntzek sor ditzaketen aukeren berri ematen zuten testuak ere positibotzat jo ziren.

Albiste negatibo gisa sailkatu ziren zientzia-aurkikuntzei zein teknologia-berrikuntzei buruzko testuak eta horien ondorio ekonomiko, politiko eta sozial negatiboak aipatzen zituztenak. Era berean, arrisku-egoerekin zein galera sozial eta ekonomikoekin zerikusia zuten testuak negatibo gisa sailkatu ziren.


Sailkapenean batean zein bestean egokitzen ez ziren testuak neutro izendatu ziren.

Ikerketak identifikatu zituen testu guztien artean, nagusi ziren ikuspegi positiboak eskaintzen zutenak.

David Randallen arrazoibideari jarraituz, lehen ondorio nagusia agerikoa da: zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sareak ahulak dira gure artean, eta, hortaz, sare horiek sortzen dituzten albiste positiboak nabarmendu egiten dituzte egunkariak. Izan ere, Randallek azaltzen duenez, osasun-sistema batek egoera benetan txarrean egon behar du sor daitezkeen albiste positiboak egunkariak aintzat har ditzaten. Azterketak identifikatu zituen testu guztien artean gehienak positiboak izan zirenez, zientzia-sareak ahulak direla ondorioztatu dezakegu. Baina, hala da benetan? Baieztapen horrek funtsik ba ote duen erabakitzeko, azterketaren emaitzak sakonago landu beharko dira.

Ikerketak iraun zuen hilabeteetan aztertu ziren hamaika egunkariak zientzia, teknologia eta berrikuntzari buruzko 6.448 testu argitaratu zituzten.

Egunkari guztien artean, *Correo* egunkariak argitaratu zuen testu-kopuru handiena. Vocento taldeko egunkari bizkaitarrak gainerakoek baino ia 200 testu gehiago argitaratu zituen; 932, hain zuzen; ikerketak jasotako guztien % 14,45. Horren ondotik, talde bereko *Diario Vasco* argitaratu zituen artikulu gehien: 741 testu, % 11,49. Noticias taldeko egunkariak ere zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-testu asko samar argitaratu zituzten: *Noticias de Gipuzkoak*, 715 (% 11,09) eta *Diario de Noticias*ek, 710 (% 11,01), hurrenez hurren.



Talde bereko egunkarien artean dauden desberdintasunak agerian jarri zituen ikerketak; esate baterako, lau hilabeteen *Noticias de Alava* egunkariak Noticias taldeko beste bi egunkariak baino ia 100 testu gutxiago argitaratu zituen, 604 (% 9,37). *Deia* egunkaria ere aurrekoetatik oso gertu kokatu zen, 691 testurekin (% 10,72). *Diario de Navarra*k 636 (% 9,86) testu kaleratu zituen, eta gainerakoek argitaratutako kopurua, berriz, nahiko txikia izan zen: *Berriak* 503 (% 7,80); *Sud Ouest*ek 379 (% 5,88); *Garak* 373 (% 5,78) eta *Le Journal*ek 164 (% 2,54).

Artikulu-kopuruari erreparatuz gero, hegoaldearen eta iparraldearen arteko ezberdintasunak agerian gelditzen dira. Hegoaldeko egunkarietan, batez beste, zientzia, teknologia eta berrikuntzari buruzko askoz ere artikulu gehiago argitaratu ziren.

Nafarroan, Gipuzkoan, Araban eta Bizkaian argitaratzen diren egunkarietan, albiste gehiago argitaratu zituzten zabalkunde-eremua herrialdera mugatzen duten egunkariak, Euskal Herrian zabaltzen direnek baino. Horrela bada, *Berriak* 503 testu kaleratu zituen (% 7,80) eta *Garak* 373 (% 5,78); hots, gainerakoek baino nabarmen albiste gutxiago.


Aztertutako egunkariak luzera eta askotariko 100 testutik gora argitaratzen dituzte egunero, batez beste. Azterketak aintzat hartu zituen egunkari guztiek, beraz, egunero 1.000 artikulua baino gehiago kaleratzen dituzte. Kopuru horiek lau hilabetetara estrapolatuz gero, argi ikusten da zientzia-gaiak egunkarietan pisu espezifiko txikia dutela, beste gai batzuekin alderatuta behintzat.

Nolanahi ere, ikerketa honek ez zituen zientzia-albisteak eta egunkariak argitaratzen dituzten beste testuak alderatu. Azterlanaren funtsa zientzia-albisten azterketa izan zen. Egunkariak zientzia-gaiak nola jorratzen dituzten ikertzeko, argitaratutako zientzia-testuei emandako tratamendua aztertu zen. Egunkariak albisteei emandako garrantzia da tratamendu horren ezaugarri nagusia.

Egunkariak gertaerei aitortzen dieten garrantzia neurtzeko, Richard Budd-en<sup>4</sup> moldatutako eskala erabili zen. Horrela bada, albisten tamaina, orrialdean hartutako espazioa, egunkariko orrialdearen zenbakia eta erabilera grafikoa kon-tuan izanik, Otik 10era bitarteko puntuazioa eman zitzaizkien testuei.

Osatutako eskalaren arabera, 10 puntu jaso zuen testuak erabateko garrantzia izan zuen, eta 0 jaso zuenak batere garrantzirik ez zuen izan egunkarientzat.

Ikerketak ezagutzera eman zuenez, zientzia, teknologia eta berrikuntzari buruzko testuak egunero argitaratzen dira egunkarietan. Hala ere, argitaratutako testu asko eta asko 1.089 (% 16,89) oso garrantzi txikikoak izaten dira.



4. BUDD, Richard W. "Attention Score: A Device for Measuring News Play". In: *Journalism Quarterly*. Columbia: Association for Education in Journalism and Mass Communication at University of South Carolina n°41, 1964; 259-262.

Azterketak iraun zuen epean, testu gehiago izan ziren garrantzirik gabekoak 403 (% 6,25) erabateko garrantzia izan zutenak baino 55 (% 0,85). Datu orokorrak hartuta, testu gehiago izan ziren garrantzi txikikoak, oso txikikoak edo gabekoak, 3.383, nahiko garrantzitsuak, garrantzi ertainekoak, handikoak edo erabateko garrantzia izan zutenak baino, 3.065.

Egunkariz egunkari erreposoa eginez gero, *Correok* argitaratu zituen erabateko garrantzia hartu zuten albiste gehien; 23, hain zuzen. Horren ondotik, *Diario Vascok* erabateko garrantzia hartu zuten 11 albiste argitaratu zituen, eta *Diario de Navarrak* beste 11. Nabarmentzekoa da, bestetik, aurrekoekin konparatuz, albiste-kopuru txikia argitaratu zuten hiru egunkariak erabateko garrantzia eman zitzaizen hainbat testu kaleratu zituztela: *Noticias de Alavak*, 4; *Deiak*, 2; *Noticias de Gipuzkoak*, 2; *Garak*, 1 eta *Sud Ouestek*, 1.

Zientzia-albisteak albiste onak dira, hau da, zientzia-albiste positiboak argitaratzen dituzten egunkariak. Hala ere, horietako asko garrantzi handirik merezi ez duten albisteak dira.

Kontraesana agerikoa dela pentsa liteke. Zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sare ahula duen herrialde bateko egunkariak alor horretan sor litezkeen albisteak asko nabarmenduko lituzkete, hain zuzen horrexegatik, ezohiko izango liratekeelako.

*Apolo XI* ontziko espediziokideek Ilargian eman zituzten urratsek izan zuten arreta ezohiko diren albiste positiboek jasotzen duten atentzioaren adibide argia da. Espazio-ontzi tripulatu bat Ilargira iristea ezohiko gertaera da gaur egun; duela 40 urte, are ezohikoagoa. Mundu guztiko egunkariak horrela interpretatu zuten, eta albistea modu nabarmenean jaso eta argitaratu zuten. Gaur egun ere, espazio-ikerketak egunkarietako albiste-agendetan leku nabarmena izaten segitzen du, besteak beste, ezohiko albisteak argitaratzeko aukera ematen duelako.

Pertsona batek Ilargia lehen aldiz zapaldu zuenetik berrogei urte pasatu direnean, zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-alorrean sortzen diren albiste positiboak ez dira garrantzitsuak kazetariarentzat, ez behintzat Euskal Herriko kazetariarentzat, eta egunkariak ez dituzte garrantzitsu gisa aurkezten.

Zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sareek eskaintzen dituzten albiste positiboak egunkariak islatzeko arrazoia ez da, beraz, gertaeren ezohiko izaera. Gertakariak urriak, bakanak izango balira, egunkariak aparteko tratamendua eskainiko liekete —persona batek Ilargia lehen aldiz zapaldu zuenean gertatu zen bezala—, eta ez da horrelakorik gertatzen. Egunkariak jasotzen dituzten albiste gehienak positiboak dira, bai, baina ez dira garrantzitsuak.

Zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-alorreko albiste positiboak zergatik jasotzen dituzte, orduan, egunkariak? Galdera horri erantzuteko, albisten ekoizpen-prozesuari erreparatu beharko diogu.


Gertaera albiste bilakatzeko prozesuan, informazio-iturrien papera funtsezkoa da. Informazio-iturriak albisteen ekoizpen-prozesuaren zutabe nagusietako bat dira. Iturrien balioaren araberakoa izango da albisteen balioa. Informazio-iturria ona bada, hau da, fidagarria bada, albistea ere ona izango da. Kazetariak hala moduzko iturriak erabiltzen baditu, albistea ere horrelakoa izango da<sup>5</sup>.

### 1.1. Iturrien erabilera

2008a baino lehen egindako prentsa-azterketek agerian utzi zuten kazetari-tzako iturrien ohiko definizioak sailkapen-arazoak ematen zituela, eta, hortaz, 2008an berariazko iturri-definizioa egin zen.

Definizio horren arabera, “Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren tratamendua eguneroko prentsan (2008)” izeneko azterketan, informazio-iturria ez da kazetariari edo hedabideari informazioa zuzenean ematen dion bitartekoa, informazioa zabaltzen duen agentea baizik. Hau da, ez zen aztertu egunkari bakoitzak zein bide erabili zuen informazioa eskuratzeko. Jatorrian informazioa nork zabaldu zuen aztertu zen, egunkariak, oro har, jatorrizko iturriaren informazioa eskaintzen baitute, nahiz eta argitu ez jatorrizko iturri horren berri nola izan duten.

Horrela bada, testu guztien % 25ek ez zuen iturririk aipatzen, testu horiek irakurri eta gero ez zegoen esaterik informazioa non sortu zen, nor zen informazioaren erantzule, testua argitaratzea erabaki zuten egunkariak eurek ez baitzuten adierazten. Ez zuten identifikatzen jatorrian zein agente izan zen informazioa zabaldu zuena. Kopuru orokorrak kontuan hartuta, 1.591 testutan ez zen iturririk aipatu, eta 4.857 testuk, ordea, agerian zuten iturria.



5. RAMIREZ DE LA PISCINA, Txema. *Kazetari-I@na Euskal Herrian*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 1998; 39-56.



Kopuru oso handi batean ez zen iturririk aipatzen, eta irakurleari ukatu egiten zitzaion informazioa ebaluatzeko funtsezko datua.

“La información científica en los diarios españoles más representativos” izeneko doktore-tesian, Antonia Morenok nabarmentzen du zientzia-kazetariak ez dutela iturririk aipatzen hainbatetan.

Gure ikerketan frogatu dugu askotan ez zela garbi geratzen zein zen iturria eta nola iristen zen iturri horretara.

Azterketaren emaitzen arabera, Euskal Herriko egunkarietan iturriak identifikatzeko arazoak daude. Antonia Morenok eginiko doktore-tesiak ere arazo bera sumatzen du Espainiako hedabideetan.

Iturriek kazetariarentzat duten garrantzia kontuan izanik, iturririk ez aipatzea uste baino joera zabalduagoa dela pentsatzeko datuak ere badaude. Europako Batzordeko Ikerketa Zuzendaritza Nagusiaren ekimenez 2007ko abenduan egin zen lan batean, “Europako Ikerketa Komunikabideetan: zer pentsatzen dute komunikabideetako profesionalak?”<sup>6</sup> izenekoan, Europako Batasuneko egunkari nagusietan lan egiten duten kazetariak iturriak identifikatzeko dituzten arazo-  
ei buruz mintzatzen dira.

Europar egindako ikerketak agerian utzi zuen kazetariarentzat arazo-iturri direla baieztatu eta identifikatutako iturririk izan ez eta iturria identifikatzeko biderik ematen ez duten informazioak. Europako Batzordearen ekimenez egindako ikerketan parte hartu zuten kazetarien laurdenek (% 26) adierazi zuten beren lana hobetzeko erronka nagusia horixe dela, hots, informazioak baieztatzeke eta iturriak identifikatzeko bidea izatea.

Argitaratzen diren informazioek informazioa eskaini duten iturrien balio bera baldin badute, nekez uler daiteke iturririk ez aipatzea edo iturririk aipatu gabe informazioak argitaratzea, eta are gutxiago iturriak ezagutzeko zailtasunak izan eta, hala ere, informazioak argitaratzea. Hala ere, zientzia, teknologia eta berrikuntzari buruzko informazioa eskaintzen duen kazetaritzak askotan ez du iturri-rik ematen.

Datua ez da funtsik gabekoa. Iturrien tratamendua, iturriekiko harremanak, iturriekin izan behar diren jarrerak eta adostasunak luze ikertu dira kazetari-tzan; hain zuzen, kazetaritza-testuen eta beste alor batekoak izan daitezkeen testuen arteko bereizketa iturrien lanketa ezberdinean dago, besteak beste; kalitateko kazetaritzaren bereizgarria baieztatu eta kontrastatutako iturrien erabilera da. Kazetaritzaren kalitatea zalantzan jartzen duen praktika da iturririk ez aipatzea.

---


6. European Commission. European Research in the Media. *What do Media Professionals think?* Bruselas: 2007; 16.

Euskal Herriko hedabideen arazoa ez ezik, Europako Batasuneko hedabideena ere bada zientzia-albisteetan iturriak baieztatzeko biderik ez izatea. Kazetariak eurek arazo gisa bizi dute egoera. Europan egindako ikerketak, ordea, ez du azaltzen zein izan daitekeen bidea iturrien identifikaziorik eza konpontzeko. Hala ere, horixe jotzen du zientzia-kazetaritzaren kalitatea hobetzeko etorkizuneko erronka nagusizat.

## 1.2. Iturri ofizialak nagusi

Esan bezala, azterketak iraun zuen hilabeteetan, zientzia, teknologia eta berrikuntza hizpide hartu zituzten testu guztien ia laurdunek (1.591) ez zuten iturriarik aipatzen. Gainerakoek (4.891) informazio-iturria identifikatzeko bidea eskaintzen zuten, eta horien artean iturri ofizialak izan ziren nagusi.

Informazioa eskaintzeko baimendutako iturriak dira iturri ofizialak: unibertsitate, enpresa, teknologia-zentro, ikerketagune, ospitale, gobernu eta abarren izenean hitz egiten duten iturriak. Azterketak argi azaltzen du zientzia, teknologia eta berrikuntzari buruzko albisteak jorratzean kazetariak gogokoen dituzten iturriak horiek direla; izan ere, identifikatutako iturrien % 60 erakundeak edo horien izenean hitz egiten zuten eledunak izan ziren.




Datu orokorretan, 5.029 erakunde aipatzen ziren iturri gisa. 2.231 (% 27) pertsona (ikertzaileak, adituak... euren buruaren izenean eta ez beste inoren izenean hitz egiten zutenak) azaltzen ziren iturri moduan, eta beste 1.130 kasutan, % 13, beste hedabide batzuk izan ziren iturri.

Testu-kopuruaren eta iturri-kopuruaren arteko desberdintasuna ulertzeko, kontuan izan behar da testu batek iturri bat baino gehiago izan dezakeela. Horregatik ez datoz bat testu-kopuruak eta iturri-kopuruak.

Iturriak eta testuen ikuspegia alderatuz gero, nabarmen azaltzen da iturri gehienek ikuspegi positiboa izan zuten albisteen informazioa eskaini zutela, eta,

kopuruetan alde handia egon arren, ehunekoei begiraturaz gero, positibo, negatibo eta neutroen proportzioa mantendu egin zen, iturria erakundeak, pertsonak ala beste hedabide batzuk izanda ere. Hau da, iturria edozein izanda ere, positibo, negatibo eta neutroen proportzioa mantendu egiten zen.



### 1.3. Komunikazio-bulegoak

Azken urteetan kazetaritzak izan duen bilakaera ulertzeko, ezinbesteko elementu izan den fenomeno bati erreparatzea funtsezko eginkizun gertatzen da iturrien azterketa egitean. Izan ere, azken urteetan kazetariak ekimena galdu dute, iturri ofizialen mesedetan.

Bilakaera hori, besteak beste, komunikazio-bulegoen eraginari esker gertatu da. Euskal Herriko Unibertsitateko Txema Ramirez de la Piscina<sup>7</sup> irakasleak zabalikertu du komunikazio-bulegoen eragina:

Gizarte nahiz ekonomia, kultura, politika edo kirol munduko erakunde publiko zein pribatuaren beharrian informatiboak kudeatzen dituzte, bai barne-komunikazioari, bai kanpo-komunikazioari begira. Bulego horien inguruan azpiegitura sendoa osatu da, nola masa-hedabideen eta kazetarien eskaerei erantzuteko, hala erakundearen barneko komunikazioa garatzeko.

7. RAMIREZ DE LA PISCINA, Txema. "Gabinetes de Comunicación: De la seducción por la imagen a la obsesión por aparecer". In: *Zer* 1, 1996.

Ramirez de la Piscinak azaltzen duenez, “jendarteko iritzian eragin positiboa izan nahi duen edozein informazio-iturri komunikazio-bulego baten laguntza behar du”.

Egunkarietako orriak betetzeko lehia aritzen diren informazio guztien artean, eragin positiboa izateko sortutako bulegoen informazioak beste iturri batzuek emandakoari gailentzen zaizkie. Mauro Wolfek<sup>8</sup> argi azaldu zuen:

Erakundeen informazio-iturri egonkorrek, kazetariak erraz aurkitzen dituztenek, lehenetsuna dute hedabide guztietan. Aldiz, baldintza horiek betetzen ez dituzten iturriak baztertu egiten dira.

Baieztapen horrekin bat datozen datuak eskaintzen ditu gure ikerketak; izan ere, aztertutako testu guztien erdietan baino gehiagotan erakundeak, hau da, informazio-iturri ofizialak izan ziren iturri, eta erakunde guztiek komunikazio-bulego edo prentsa-bulegoen zerbitzuak erabiltzen dituzte albisteen berri emateko.

Prentsa-bulegoen eragina ez da artikulu-kopuruan bakarrik nabari. Txema Ramirez de la Piscinak, prentsa-bulegoen eragina azaltzeko, hau zihoen:

Komunikazio-bulegoek, ohikeriaz baliatzen direnez, kazetaritza-produkzioa baldintzatzen dute; izan ere, gero eta gehiago sartzen dira ohikerian, eta murriztu egiten dute kazetarien sormen-lana. “Igorle” berriak direnez gero, komunikabideen iragazkortasuna baliatzen dute iritzi publikoan eragiteko.

Ramirez de la Piscinak duela hamarkada bat sumatu zuen fenomeno area-gotu egin da urteekin. Joan den mendearen bukaeran, posible zen komunikazio-bulegorik gabeko erakundeak aurkitzea; gaur egun, ordea, ia ezinezkoa da. Urteekin, gainera, hobetu egin dira bulegoen baliabide eta zerbitzuak, besteak beste, Internetek eskaintzen dituen aukera berriei esker. Europako Batasunak zientzia eta teknologiar buruzko informazioak zabaltzeko erabiltzen dituen baliabideak horren etsenplu argia dira: prentsa-oharrak formatu ezberdinetan, kalitate oneko audio- eta bideo-materialak, zuzeneko telebista-emankizunak, bideo-webgune bereziak<sup>9</sup>...

Komunikazio-bulegoek lortzen duten nabarmentasunak prentsan duen eraginari kritika zorrotza egin zion Timoty Radfordek, *The Guardian* egunkariko editore zientifikoak. Azaltzen zuenez, “prentsa manipulatzea helburu duen industria bat dago, eta gobernuek, unibertsitateek eta ikerketa-erakundeek osatzen dute”.<sup>10</sup>

Kritikak kritika, hedabide eta kazetari gehienak komunikazio-bulego horien zerbitzuez baliatzen dira. Eusko Ikaskuntzaren Komunikabideen-sailak antolatu-

---

8. WOLF, Mauro. *La investigación en la comunicación de masas*. Bartzelona: Paidós Ibérica, 1987; 256.

9. Athenaweb: the european science web channel. <http://www.athenaweb.org>.

10. RADFORD, T. “*Influence and power of the media*”. In: *The Lancet*, 347, 1996; 1533-1535.

ta Bilbon egin ziren zientzia-kazetaritzari buruzko jardunaldietan, hauxe esan zuen *Diari de Barcelonako* Cristina Ribasek<sup>11</sup>:

Materiala jasotzeko kanal nagusiak guztiz egituratuta daude jadanik, albisteak emateko duten gaitasunaren arabera; hain zuzen, kanal nagusiak dira albiste izan daitekeen informazioa etengabe ematen dutenak: iturri ofizialak eta prentsa-agentziak.

Bi horiez gain, Ribasek ezinbesteko iturri jo zituen zientzia-aldizkarien *press release*-ak eta zientzialariak.

Zientzia-kazetarien munduko biltzarra 2009ko ekainean Londresen egingo zela-eta, *Nature*<sup>12</sup> aldizkariak zientzia-kazetaritzari buruzko gehigarri berezia argitaratu zuen. Kazetaritza espezializatuaren alor honi buruzko hausnarketa egin ez ezik, aldizkariak zientzia-kazetarien artean egindako galdeketa<sup>13</sup> baten berri eman ere egin zuen. Galdeketa horren emaitzen arabera, prentsa-oharrak dira kazetarien informazio-iturri nagusia. Hau da, komunikazio-bulego batek informazio baten berri emateko berariaz osatutako eta komunikabideetara bidalitako agiriak dira kazetariak zientziari buruzko informazioa zabaltzeko erabiltzen duten lehengaia. Izan ere, *press-release*ak horixe dira: zientzia-aldizkariak kaleratuko dituzten artikuluen prentsa-oharrak, kazetaritzaren arauak segituz idatzitakoak, eta munduko ahalik eta hedabide gehienetan argitaratzeko idatziak.

Azterketak ezagutzera eman zuenez, aldizkari espezializatu aipatuenak *Nature* eta *Science* dira Euskal Herriko egunkarietan. Datu horrek adierazten du Euskal Herriko egunkariak Europako hedabide gehien antzera jokatzeko dutela; izan ere, bi aldizkari horien *press-release*ek mundu osoko hedabideetan lortzen dute oihartzuna. Karlos III.a Unibertsitateko kazetaritza berezituko irakasle titular den Carlos Elíasek<sup>14</sup> azaltzen duenez, aldizkari biek prentsa-bulego oso indartsuak dituzte. Kazetaritza-idazketaren arauak aintzat hartuta idazten dituzte argitaratuko dituzten eduki nagusiak, eta, hortaz, “kazetariak ez dute artikulua nagusia irakurri beharrik, eta horrek haien lana errazten du”.

*Nature* aldizkariak zientzia-kazetarien artean egindako galdetegian parte hartu zuten kazetariak aitortzen zuten, prentsa-oharrak eta aldizkari espezializatuak eta horiek eskaintzen dituzten *press release*ak (% 54) oso maiz dira informazio-iturri; harreman pertsonalak, berriz, ez dira horren sarri izaten informazio-iturri (% 35).

---

11. RIBAS, Cristina. “El periodismo científico y su relación con el proceso de producción de las noticias en los medios de comunicación de masas”. In: *Mediatika* 8. Eusko Ikaskuntza, 2002; 499-522.

12. Science Journalims. *Nature* 458. June 2009.

13. BRUMFIEL, Geoff. “Science journalism: Supplanting the old media?”. In: *Nature* 458, 2009; 274-277.

14. ELÍAS, Carlos. “Influencias de las revistas de impacto en el periodismo científico y en la ciencia actual”. In: *Reis* 98/02; 123-137.

Kazetariei gaur egun dituzten lan-ohiturak duela bost urtekoekin alderatzeko eskatzen zitzaien galdetegi berean, eta erantzunek argi islatzen dute iturri ofizialen erabilerak gora egin duela.

Komunikazio-bulegoen eragina kalitateko kazetaritzarentzat arazo gisa ikusten du Ramirez de la Piscina. Ez da iritzi hori duen bakararra.

*Nature* aldizkariaren editorialean irakur daitekeenez, “ohiko hedabideek egiten duten zientziaren jarraipena kalitatea galduz joan da, gehien iritzi”.

Kalitate-galeraren arrazoiak asko eta asko izan daitezke. Hala ere, askok iturri ofizialekiko gehiegizko mendekotasuna arazo gisa ikusten du. *The Times* aldizkarian idazten duen Toby Murcott<sup>15</sup> zientzia-kazetariak ohartarazten duenez, egunkarietako albiste-agendetan leku nabarmenegia hartzen dute prentsa-oharrek, eta, haren ustez, zientzia-kazetaritzak kalitateko kazetaritzaren irizpideei jarraitu beharko lieke.

Albisteak testuinguruan jarri, kritika egin eta gaiak sakonean lantzea izan dira kalitateko kazetaritzaren eginkizun nagusiak. Bide horri ekiteko, ordea, informazioak kontrastatu egin behar dira, eta horrek hainbat iturri aintzat hartzea eskatzen du.

Iturriarik aipatzen ez duten artikulua albo batera utzita, dagoeneko jorratu baitira horrek sor ditzakeen arazoak, ikerketak argitzen duenez, iturriak ezagunak direnean ere ez zaio askotan iturri bati baino gehiagori kontsulta egiten. Azterketak aintzat hartu zituen hamaika egunkarietako 4.857 artikuluetan identifikatzen ziren iturriak, eta, guztira, 8.390 iturri aipatzen ziren, hau da, albiste bakoitzeko 1,7 informazio-iturri. Datu horren arabera, argi esan daiteke informazioak kontrastatzea ez dela oso ohikoa. Informazioa kontrastatzeak gutxienez bi iturri esandakoa jasotzea eskatuko luke, eta, azterketak emandako datuak erakusten duenez, testuak ez dira iristen gutxienerako iturri-kopuru hori izatera.

Antonia Morenok eginiko doktore-tesiaren ondorio nagusietan, antzeko egoera deskribatzen da. Morenok dioenez, albiste bakoitzean batez beste iturri bat edo bi aipatzen dira, eta horrek “adierazten du informazioak oso gutxitan baieztatatu eta kontrastatzen direla”.

Carlos Elíasek<sup>16</sup> aldizkari zientifikoaren prentsa-bulegoen eraginean ikusten du kontraste ezaren arrazoietakoa bat. Aldizkari zientifikoek kalitatearen bermea dute. “*Science* eta *Nature* iturri ofizial eta instituzional gisa hartzen direnez, haien emaitzak argitaratzeak ez die kazetariei informazioa kontrastatzea eskatzen, sinesgarritasunaren zigilua baitute”.

---

15. MURCOTT, Toby. “*Science journalism: Toppling the priesthood*”. In: *Nature* 459, 2009; 1054-1055.

16. ELÍAS, Carlos. “*Influencia de las revistas de impacto en el periodismo científico y en la ciencia actual*”. In: *Reis* 98, 2002; 123-137.

Sinesgarritasun horren arrazoia zientzia-aldizkarien argitaratze-prozesu zaila da. Aldizkariotan, edozein artikuluk, argitaratu aurretik, *peer-review* izeneko prozesua gainditu behar du, hau da, lanak irakurle adituek aztertu behar dituzte, eta irakurle-taldeak oniritzia eman ondoren bakarrik argitaratzen dira. Eta prozesu horrek bermea ematen die zientzia-aldizkarietako artikuluei. *Science* aldizkariak urtean 12.000 lan inguru jasotzen ditu, eta horietatik % 8 bakarrik onartzen dira. *Nature* eta *Science* munduan inpaktu handiena duten zientzia-aldizkariak dira. Hala ere, kazetariak ez dituzte aldizkariotako zientzia-artikuluak jasotzen; aldizkari horietako prentsa-bulegoek idatzitako prentsa-oharrak jasotzen dituzte. Bi aldizkariak oso prentsa-bulego indartsuak dituzte, eta kazetaritza-ikuspegitik inpaktu handiena izan dezaketen prentsa-oharrak helarazten dizkiete munduko hedabide indartsuenei.

Esan bezala, informazio ofizialek beste edozein iturritako informazioek baino sinesgarritasun handiagoa izaten dute kazetariarentzat. Esan beharrik ez dago aldizkari zientifikoek eskaintzen dituzten informazioek, *press release*ek, sinesgarritasunaren bermea dutela, besteak beste, *peer review* prozesua gainditu duten artikuluei buruzko informazioa eskaintzen dutelako.

Furio Colombo<sup>17</sup> kazetaritza-irakasle ohiaren ustez, sinesgarritasunaren bermea dutelako balio erantsi handiarekin hartzen dituzte kazetariak zientzia-albisteak eta, hortaz, ez da kontraste-lanik egiten zientzia-aldizkariak ematen duten informazioarekin. Kazetaritza-alor guztiei eragiten dien arazo gisa aurkezten du Colombok kontrasterik eza, baina, zientzia-aldizkariak eta horiek ekoizteko prozesuaren berezitasunaren eraginez, zientzia-kazetaritza errealitate horren paradigma gisa aurkezten du.

2004an Bartzelonan egin zen Forum izeneko ekimenaren baitan, "Diálogo sobre conocimiento científico y diversidad cultural" izeneko ekitaldia izan zen. 50 estatutako 650 pertsona bildu ziren zientzia eta teknologiaren komunikaziorik buruzko hausnarketa egiteko. Biltzar hartan, *The New York Times* egunkariako *Science Times* gehigarriaren sortzaileak, John Noble Wilfordek, behin eta berriz dei egin zien kazetariei, "kritiko" izan zitezten.

Antzeko hitzak idatzi izan ditu David Dickson<sup>18</sup> zientzia-kazetariak. Hego Amerikako, Asiako eta Afrikako herrialdeetako zientzia-informazioak zabaltzen dituen SciDev.Net sarearen zuzendariak ohartarazten duenez, "zientzia-kazetariak, definizioz, zientziaren negozioaren parte izan behar dutela uste izan da azken urteotan", eta horrek kazetariak eta harreman publikoen artean egon daitekeen mugak ezabatzea ekarri du.

Hori gertatzen denean, "kazetariak garrantzitsua denari buruzko bere iritzia izateko duen ardura ukatu, eta beste batzuen iritzia bere egiten du".

---

17. COLOMBO, Furio. *Ultimas noticias sobre periodismo*. Bartzelona: Anagrama, 1997; 96-111.

18. DICKSON, David. "El periodismo científico debe mantener el espíritu crítico". In: *Quark*, 34, 2004; 117-122.

*The New York Times* egunkariko Lawrence Altmanek *Quark*<sup>19</sup> aldizkarian egin zioten elkarriketan adierazi zuenez, prentsa-bulegoen informazioak “informazio homogeneoa” sustatzen du.

Zientzia-kazetariak kazetaritzaren genero guztiak, interpretazioa eta iritzia barne, egin ditzaten eskatzen da zientzia-kazetaritza hizpide duten foro nagusietan. Toby Murcott zientzia-kazetariak *Naturen* idazten duenez, “zientzia-kazetariak garrantzitsuak dira gizartearentzat”, eta, horrexegatik, albisteak eskaintzeaz gain, interpretazioa eta analisisa eskaini behar dituztela uste du, besteak beste “teknologia berriek gizartean izan ditzaketen eraginak aurreratu ahal izateko”. Zientziari buruz hitz egiten dutenean, ordea, kazetariak gutxitan, oso gutxitan, eskaintzen dute informazioa ez den besterik.

#### 1.4. Informazioa nagusi

Egunkariak zientziari buruz idaztean kazetaritzaren zein genero erabiltzen duten ere aztertu zuen 2008ko ikerketak. Errealitatea aurkezteko modu berezi bat dira kazetaritza-generoak<sup>20</sup> eta, kazetaritzaren espezializazioa izanik, zientzia-kazetaritzak edozein genero jorra dezake<sup>21</sup>. Narrazio-formatu ezberdinei genero deritze, eta hiru sail nagusitan banatzen dira: informazioa, iritzia eta interpretazioa.

Ikerketaren arabera, argi esan daiteke zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-gaiak lantzean Euskal Herriko egunkariak informazioa —albisteak— eskaintzen dituztela batez ere.

2008an egindako prentsa-azterketak joera hori azalera zuen. Zientzia, teknologia eta berrikuntza jorratzean, egunkariak gehienbat informazio hutsa eskaintzen dute (albisteak, laburrak...). Horrela bada, identifikatu ziren testu guztien % 80 (4.737) informazio hutsa ziren, eta % 20 iritzi-interpretazioaren generoko testuak (1.168).

Lanketa-maila txikiena eskatzen duen generoko testuak dira, beraz, euskal egunkarietan aurki daitezkeenak, zientzia, teknologia edo berrikuntza hizpide dutenean behintzat.

Testu horietan zein gai jorratu ziren ere aztertu zen, eta gai horien jatorri geografikoa ere aztertzea erabaki zen. Azterketak argi erakutsi zuen Euskal Herriko hedabideak zientzia, teknologia eta berrikuntzaz ari direnean Euskal Herriko gaiari buruz ari direla gehienetan. Euskal Herriko iturriak erabili ziren testuen


---

19. REVUELTA, Gemma. “Entrevista a Lawrence Altman. Los press releases fomentan el periodismo perezoso y la información homogénea”. In: *Quark* 9, 1997; 75-77.

20. ECHEVARRIA, Begoña. “Por qué hablar hoy de género periodísticos”. In: *Comunicación y Estudios Universitarios* 8, 1998: 9-14.

21. ELÍAS, Carlos. *Fundamentos del periodismo científico y divulgación mediática*. Madrid: Alianza Editorial, 2008; 167.





% 50,45ean; nazioartekoak, % 47,29an. Horien artean, Europakoak % 28,04 izan ziren eta munduko beste herrialde batzuetakoak % 19,25. Nabarmenezkoa da % 2,26an ezin zela iturria gune geografiko zehatz batean kokatu.

Gai guztien artean, teknologia nabarmendu zen. Albisteetan, teknologia-gaiak izan ziren nagusi. Osasunari buruzko albisteak ere askotan argitaratu ziren, eta informatikarekin eta ingurumenarekin zerikusia zutenak ere bai.

Interpretazio-generoko testuek (erreportaje eta elkarrizketek) gaien lanketa sakonagoa adierazten dute, eta, beraz, genero horretako testuetan erabilitako gaien azterketak, gaien aukeraketa orokorarekin batera, egunkarien joerari buruzko argibide garrantzitsua eman dezake.

Horrela bada, albisteetan ez bezala, erreportaje eta elkarrizketetan gai nagusia ez zen izan teknologia. Erreportaje eta elkarrizketetan gehien landutako gaia osasuna izan zen. Horren ondotik, lurraren zientziei buruzkoak eta teknologia-gaiak ageri ziren; informatika, ingurumena, biziaren zientziak eta askotariko gaiak ere maiz landu ziren.

Azterketak aintzat hartu zituen testu guztien artean, teknologia 1.347 albistetako gaia izan zen, guztien % 20,89. Horren ondotik, 1.203 artikulurekin, osasunari buruzko testuak izan ziren nagusi, guztien % 18,66. Informatika-testuak, berriz, 1.185 izan ziren, (% 18,38). Hiru gai horien aipamena gainerako guztiena baino askoz ere handiagoa izan zen. Horien ondotik gehien aipatutako gaia ingurumena izan zen, 690 aldiz, hain zuzen (% 10,70).

Gehien landutako gaia teknologia izan bazen ere, egunkariek beren azaletara gehien eraman zituzten testuen gaia osasuna izan zen. Egunkarien azaletan argitaratutako zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-gaien % 21,41 osasun-alorreko albisteak izan ziren. Horren ondotik, ingurumenak hartu zuen azaletan leku gehien, azaletako aipamen guztien % 17,43. Bi gai horien ondotik azaletan sarrien hizpide izandako gaia teknologia da (% 14,07).

Ondoren, lurraren zientziak (% 10,09), informatika (% 7,95) eta nekazaritza, basogintza, abeltzaintza eta arrantza (% 5,20) dira, hurrenez hurren, azaletako testuen gai aipatuena.

Deigarria da lehenengo sektoreari erreferentzia egiten dioten testuak kopuru aldetik guztien % 1,77 besterik ez izatea, eta, aldiz, azaletan aipameneren % 5,20ra iristea.

Azaletara eramandako gaiak, beraz, argi adierazten dute egunkariek ez dituztela maizen argitaratzen dituzten gaiak eramaten azaletara, eta, horren ondorioz, ez datozela beti bat maiztasuna eta garrantzia, maiztasun txikiarekin argitaratzen diren gaiak —nekazaritza, basogintza, abeltzaintza eta arrantza, esaterako— eramaten baitituzte egunkariek azaletara.

Zientzia, teknologia eta berrikuntzari egunkariek eskaintzen dioten arreta ulertzeko, argitaratutako testu-kopurua bezain garrantzitsua da testu horien generoa eta testu horiek zer sailetan argitaratu diren jakitea.

Ikerketak identifikatu zituen testu gehienak kultura eta ikuskizunei egunkariek eskaintzen dizkieten orrialdeetan argitaratu ziren (% 50,26). Kontuan izan behar da Euskal Herrian argitaratzen diren egunkariek aisialdiarekin zerikusia duten orrialdeetan ematen dituztela teknologia eta automobil-industriaren eskaintza berriak, besteak beste, eta horrek eragiten duela orrialde horietan horrenbeste zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-testu aurkitzea.

Gainerakoan, politikaren, gizartearen, eta herrien sailetan aurkitzen ziren zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-testu gehien (% 34,14). Beste sailetan asko murrizten zen ikerketa honetako gaien presentzia: ekonomia (% 5,66), nazioartea (% 4,51), iritzia (% 3,83), kirolak (% 1,60).

Iritzi-sailetan gutxitan aurki zitekeen zientzia, teknologia edo berrikuntzari buruzko testurik. Aurkitu zirenean, ingurumenari buruzkoak izan ziren nagusiki (% 28,88). Horren ondotik, teknologiari buruzkoak (% 16,25) lantzen ziren iritzitutan.

Iritzi-orrialdeen azterketak hainbat datu adierazgarri eskaini zituen. Daturik nabarmenena iritzi-testuen urritasuna izan zen. Iritzi-orrialdeetan eskaini ohi dute egunkariek aktualitatearekin zerikusia duten gaiei buruz duten iritzia. Iritzi-generoko testurik garrantzitsuena editoriala izan ohi da. Editorialean azaldu ohi dute egunkariek beren jarrera. 2008ko lehen lau hilabeteetan, aztertutako 11 egunkariek 26 editorial besterik ez zituzten argitaratu, zientzia-testu guztien % 0,40. Datu horiek kontuan hartuta, bi aukera planteatu ziren:


- a) Egunkariak ez dute iritzirik zientzia, teknologia eta berrikuntzari buruz.
- b) Egunkariak ez dute uste zientzia-gertaerak editorialetara ekartzea merezi duenik. Hau da, ez dute uste editorialetan jasotzeko besteko garrantzia duenik.

Azterketak adierazi du egunkariak zientzia-gertaeren berri ematen dutela, eta, zenbaitetan, oso garrantzitsutzat dituzten zientzia-albisteak ere argitaratzen dituztela. Izan ere, nabarmentzeko moduakoa izan zen 2008ko lehen lau hila-beteetan bitarteko handiekin argitaratu ziren albisteen kopurua (infografia, argazkiak, lehen orrialdean deia eta egunkari barruan azalera handia). Garrantzi-eskalan 8, 9 edo 10 puntu eskuratu zituzten 687 testuk. Bistan da kaleratutako 26 editorialak baino askoz zientzia-albiste gehiago izan zirela garrantzi handikoa egunkarientzat.

Azterketako datuen argitara, zientzia-albisteak egunkarientzat garrantzitsuak izan daitezkeela ikusirik, arrazoizkoa izan daiteke pentsatzea editorialgileek ez dutela zientzia-albisteei buruzko iritzi propiorik.

Editorialgileek, gehienetan, ingurumenarekin zerikusia duten gaiak buruz eman zuten iritzia (10), eta, azterketan aintzat hartu ziren testuetan ez bezala, editorial gehienek ikuspegi negatiboa eman zuten –26tik 14k (% 53,85)–.

Editorial gehienek ikuspegi negatiboa bazuen ere, iritzi-artikulu guztien ikuspegi positiboa izan zen. Lagindutako testu guztietatik 1.282 iritziak izan ziren (iritzi-artikuluak eta analisiak). Horieta gehienak iritzi-sailetik kanpo argi-



taratu ziren (1.005), eta artikulu horiek zientziari eta teknologiar buruzko iritzi positiboa islatzen zuten nagusiki —821 (% 80,80)—.

Aldiz, iritzien sailean argitaratutako testuen artean, ikuspegi positiboa zutenak baino gehiago izan ziren ikuspegi negatiboa zutenak: 277tik 156 (% 56,32), editorialekin gertatzen den bezala.

Datu horrek ondoren azalduko diren ondorioetarako hainbat pista eskaini zituen. Datu horren arabera, arrazoizkoa izan daiteke pentsatzea ez dela beraie-na egunkariek eskaintzen duten zientziaren aldeko jarrera positiboa.

## 2. ONDORIO NAGUSIAK

“Zientzia, teknologia eta berrikuntzaren tratamendua eguneroko prentsan (2008)” izeneko ikerketaren emaitzen arabera, argi esan daiteke zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-sektoreetan sortzen diren informazioak interesgarri direla Euskal Herrian argitaratzen diren egunkari guztientzat; izan ere, guztiek argitaratzen dituzte gai horiei buruzko albisteak, gehiago ala gutxiago. Hala ere, egunkariek argitaratzen duten testu-kopuru osoa aintzat hartuta, oraindik ere badago bidea zientzia-albisteak editoreen lehentasunen artean ez daudela esateko; azterketaren datuek behintzat hori islatzen dute.

Ikerketaren emaitzek adierazten dute teknologia-, osasun-, informatika- eta ingurumen-alorreko gaiak aukeratu ohi dituztela kazetariak zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-alorreko testuak lantzean.

Gai horiek lantzean, informazio hutsa —albisteak eta laburrak— eskaini ohi dute egunkariek, nahiz eta ezin esan daitekeen interpretazio-generoa albo batera uzten dutenik. Edonola ere, argi ikusten da lanketa-maila txikiena eskatzen duen kazetaritza-generoa aukeratu ohi dela zientzia-, teknologia- zein berrikuntza-gaiak lantzeko.

Ikerketak azaleratu zuenez, zientzia- eta teknologia-gaiak oso gutxitan lantzen dira iritzi-generoko testuetan, informazio eta interpretazioarekin alderatuz. Era berean, esan daiteke egunkariek zientzia eta teknologiar buruz argitaratzen duten iritzia ez dela askotan hedabidearena berarena. Izan ere, aztertutako 6.448 testuetatik 26 besterik ez ziren editoriak.

Iritzi gutxi ematen badute ere, egunkariek zientzia, berrikuntza eta teknologiaren aldeko jarrera dutela esan daiteke. Izan ere, argitaratzen diren informazio gehienak ikuspegia positiboa da: testu guztien % 71. Hala ere, ez dago daturik baieztatzeko zientziaren aldeko jarrera hori egunkariena eta, ondorioz, talde argitaratzailearena denik. Ikuspegi positiboa azaltzen da aztertutako testuen % 71n; era berean, iritzi-artikulu gehienak ikuspegi positiboa adierazten dute; editorialetan, ordea, ez da ikuspegi positibo hori islatzen. Editorialen erdiak baino gehiagok ikuspegi negatiboa islatu zuen.

Azterketak argi adierazten du egunkariak Euskal Herriko zein Europako zientzia-albiste ofizialak argitaratzen dituztela, aipatutako iturrien % 60 ofizialak izan baitziren, eta jatorriz, Euskal Herrikoak edo Europakoak.

Iturri ofizialek zabalduetako informazioari sinesgarritasun osoa ematen diote egunkariak, baieztatu baitaiteke, azterketako datuen arabera, ez dutela informazioa egiaztatzen. Artikulu bakoitzak 1,7 iturri aipatzen ditu batez beste, betiere kontuan izanik testuen % 25ek ez duela iturririk aipatzen. Datu horren arabera, esan daiteke Euskal Herriko kazetariak normalean ez dituztela zientzia-gaiak egiaztatzen. Informazioa egiaztatzeko, gutxienez bi iturrik esandakoa jaso behar da testuetan, eta, datuen arabera, ez dira gutxieneko bi iturri horiek aipatzen.

Ezin aipatu gabe utzi testuen % 25ean ez dagoela esaterik albistea non sortu den, edo nor den informazioaren erantzule, egunkariak ez baitute eman datu hori. Hau da, lau testutatik bat iturrien aipamenik egin gabe argitaratzen da, eta kalitateko kazetaritzaren ikuspegitik nekez uler daiteke iturrien aipamenik egiten ez duen testuak argitaratzea.

Ikerketak nahiko datu eskaintzen du, beraz, adierazteko egunkariak zientzia eta teknologiaren alde azaltzen duten jarrera ez dela hedabideena berena. Iturri ofizialen nagusitasuna eta kontraste-maila txikia kontuan hartuta, pentsa liteke testuen ikuspegi positiboa informazio-iturriena dela, hau da, egiaztapenetatik eta kritika jasotzeko arriskutik salbu, informazio-iturriek beren informazioak argitaratzeko bide erosoak aurkitzen dutela euskal prentsan.

Bestalde, euskal hedabideek zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-gaiak lantzeko hautatzen dituzten gaiak Europako beren kideek hautatzen dituztenen antzekoak dira, eta albisteen jatorria eta egilea identifikatzeko dituzten arazoak ez dira euskal kazetariak bakarrik, Europako profesionalek arazo bera nabarmentzen baitute dituzten erronken artean.

### **3. ETORKIZUNeko ERRONKAK**

Krisiak bete-betean hartu duen sektore batek eskaintzen duen zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-informazioa aztertu zuen azterketak. Azken urtean, munduko egunkari handienek kazetari-taldeak murriztu dituzte. *The New York Times*, *Le Monde*, *Los Angeles Times* egunkariak egindako kazetarien kaleratze-iragarpenek, esaterako, mundu osoan izan dute oihartzuna.

Besteak beste kazetaritza digitalaren eraginaren ondorioz egokitze-prozesuan zegoen sektoreari eragin dio krisiak bete-betean. Espainiako Estudio General de Medios inkestak emandako datuen arabera, egunkari gehienek galdu dituzte irakurleak. 2008ko urritik 2009ko maiatzera bitartean egindako inkestararen ondorioetan, hau irakur daiteke:

Eskualdeko prentsari dagokionez, egoera, oro har, pattala da. Egunkari batzuek gora egin dute 2008tik —La Voz de Galicia (603.000 irakurle) eta El Correo (526.000), adibidez— nahiz eta azken hiru hilekoan behera egin duten; hiru hileko hori

gogorra izan da egunkari guztientzat. Jaitsiera nabarmenenak *Faro de Vigok* eta *Levan-tek* izan dituzte. Lehenengoak irakurleen % 27,4 galdu ditu urtebetean (270.000), eta bigarrenak, berriz, —Prensa Ibérica taldekoa hori ere— % 10 (283.000 irakurle).

Krisi-hotsa aspaldikoa da egunkarietako erredakzioetan, eta horrek eragin nabaria izan du kazetari guztien lanean eta nola ez, zientzia-kazetarien artean. *Nature* aldizkariak zientzia-kazetarien artean eginiko inkestaren arabera, erredakzioetako lantaldeak gutxitu diren heinean, produkzio-eskaerak gehitu egin zaizkie kazetari askori eta askori, eta horrek, jakina, eragina izan du lanaren kalitatean: informazioak gutxiago lantzen dira, iturri ofizialen informazioak gehiagotan erabiltzen dira...

Lantaldeak txikitu ez ezik, egunkariak mehetu ere egin dira. Papera garestia da, eta orrialde preziatu horietan zientzia-gaiak argitaratzea ez da lan erraza. Audientziak gehitzea helburu duen editoreari zientzia-informazioak argitaratzeko espazioa eskatzea, lan nekeza ez ezik, etsigarria ere gerta daiteke<sup>22</sup>. Urrutira joan gabe, Euskal Herrian izan diren egunkari-birmoldaketek zientzia-informazioa gutxitzea izan dute ondorio. 2006ko abendutik eta 2007ko apirilera bitartean, Elhuyar Fundazioak beste prentsa-azterketa bat egin zuen. Kasu hartan, *El Correo*, *Deia*, *Diario de Noticias de Alava*, *Diario Vasco*, *Gara*, *Noticias de Gipuzkoa* eta *El Pais* egunkariak argitaratutako zientzia-informazioa aztertu zen. Lan hark argi islatzen zuen *Berria* eta *Gara* egunkariak aurreko urtearekin alderatuz argitaratutako zientzia-testu kopuruetan jaitsiera nabarmena izan zutela, % 39,49ko eta % 37,56ko jaitsierak, hurrenez hurren. Jaitsierak, zientzia-artikulu kopuru osoan ez ezik, zientzia artikulek azaletan izandako agerpenetan ere gertatu ziren. Aurreko urtearekin alderatuz, *Berria* eta *Gara* egunkarietako azaletan argitaratutako zientzia-testu kopuruak % 31,49 eta % 24,32 jaitsi ziren, hurrenez hurren.

Jaitsiera horrek zientzia-gaiak argitaratzen ziren atalak desagertzearekin zeri-kusi zuzena izan zuela baieztatzeko, galdera zuzena egin beharko litzaieke editoreei. Hala ere, zera irakur daiteke 2006-2007ko azterketaren ondorioetan:

Datu aipagarria da *Berria* eta *Gara* egunkarietako zientzia-albisteen kopurua eta azalera txikitu izana. Gertaera horri arrazoi bat eman nahi izatera, badirudi eragina izan duela bi egunkarietan maketa-aldaketak egin izanak (*Berria*n ikerketa hasi aurretik eta *Gara*n ikerketaren erdian). *Berria*ren kasuan, “Gaiak” zeritzon atala kendu dute; atal horretan, zientzia eta teknologiari buruzko gaiak nagusitzen ziren ia egunero; *Gararen* kasuan, berriz, lehen zientziari buruzko albiste ia denak “Jendartea” atalean lantzen zituzten, baina orain ez dago horientzako leku jakinik; gehienak “Eguneroko Gaiak” ize-neko atalean argitaratzen dira, beste hainbat motatako albisteekin batera.

Euskal Herriko bi egunkari horien barne-berrantolaketa biktima zientzia-albisteak izan zirela esan daiteke. Mundu guztian nabari da joera hori.

2009ko Ekainean Londresen izan zen zientzia-kazetarien munduko biltzarreko<sup>23</sup> lehen saioan, luze eta zabal hitz egin zen zientzia-kazetaritzak bizi duen kri-

22. MAZZONETTO, Marzia, European forum on science journalims. In: *Quark* 39-40, 2007. 34-38.

23. <http://www.wcsj2009.org/>

siari buruz, eta ataka horretatik irteteko egon daitezkeen bide egokiei buruz. Iturri ezberdinak aipatzea, gaiak sakonean lantzea, eta informatu ez ezik interpretatu eta iritzia ematea dira kalitatezko kazetaritzaren errezeta zaharrak. Zaharrak bai, baina ez horregatik zaharkituak.

## BIBLIOGRAFIA

- ARMENTIA, J. I.; CAMINOS, J. M.; PALAZIO, G. *Kazetaritzaren hasi-masiak*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2000.
- BRUMFIEL, Geoff. "Science journalism: Supplanting the old media?". In: *Nature* 458, 2009; 274-277.
- BUDD, Richard W. "Attention Score: A Device for Measuring News Play". In: *Journalism Quarterly*. Columbia: Association for Education in Journalism and Mass Communication at University of South Carolina nº41, 1964.
- COLOMBO, Furio. *Ultimas noticias sobre periodismo*. Bartzelona: Anagrama, 1997.
- DICKSON, David. "El periodismo científico debe mantener el espíritu crítico". In: *Quark* 34. Bartzelona: 2004.
- ECHEVARRIA, Begoña. "Por qué hablar hoy de género periodísticos". In: *Comunicación y Estudios Universitarios* 8, 1998.
- ELÍAS, Carlos. "Influencias de las revistas de impacto en el periodismo científico y en la ciencia actual". In: *Reis* 98/02; 123-137.
- ELÍAS, Carlos. *Fundamentos del periodismo científico y divulgación mediática*. Madrid: Alianza Editorial, 2008.
- MAZZONETTO, Marzia. "European forum on science journalism". In: *Quark* 39-40, 2007; 34-38.
- MURCOTT, Toby. "Science journalism: Toppling the priesthood". In: *Nature* 459, 2009; 1054-1055.
- RADFORD, T. "Influence and power of the media". In: *The Lancet*, 347, 1996; 1533-1.535.
- RAMIREZ DE LA PISCINA, Txema. "Gabinetes de Comunicación: De la seducción por la imagen a la obsesión por aparecer". In: *Zer* 1, 1996.
- RAMIREZ DE LA PISCINA, Txema. *Kazetari-I@na Euskal Herrian*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea, 1998.
- RANDALL, David. *El periodista universal*. 2. arg. Madrid: Siglo XXI, 2008.
- REVUELTA, Gemma. "Entrevista a Lawrence Altman. Los press releases fomentan el periodismo perezoso y la información homogénea". In: *Quark* 9, 1997.
- RIBAS, Cristina. "El periodismo científico y su relación con el proceso de producción de las noticias en los medios de comunicación de masas". In: *Mediatika* 8. Eusko Ikaskuntza, 2002; 499-522.
- WOLF, Mauro. *La investigación en la comunicación de masas*. Bartzelona: Paidós Ibérica, 1987.